

Udaletxea



Udalerria:

Otxandio.

Tokia:

Plaza Nagusia.

Bisitak egiteko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:

8.00etatik 15.00etara.

Larunbatetan:

9.00etatik 13.00etara.


Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

San Martín basiliza. Gorrotondo auzoa. Otxandio, Ubidearako bidean.

Santa Marina eliza.

Plaza Nagusia, z./g., Otxandio.

Urkiolako Santutegia. Abadiño.



Otxandioko Udaletxearen kokaerari dagokionean esan behar da leku apartan dagoela, Plaza Nagusiaren ardatzean, pelotalekua eta elizako kanpandorrearekin orekan. Toki hori Euskal Herri osoko herri esparririk interesgarrienetakoa da.

Eraikinaren oin-planoa errektangeluarra da; fatxada nagusia kareharrizko harlanduzkoa du, oso ondo landua alegia, eta gainerako hormak harlangaitzezkoak dira.

Bi altura ditu. Behekoan arkupeak ditugu; puntu erdiko arku molduradunak ditu, plakazko kapiteldun zutoinen gainean eusten direnak. Solairu nagusia eta behekoa batzeko plaka hautsizko inposta laua dago, horrela balkoien ordekatxoari eutsiz.

Begiratoki nagusiak bat egiten du arkupeko hiru arkurekin eta alboetako beste biak banakatuta daude. Babeserako burdineria kalitate handikoa da, artaburuaren eta goardamalleta irudiek eta errobo eta lorez apainduta.

Solairuaren argiztapena giltzarriaren atea diren lau baoren bidez gauzatu da, oso xeheak eta inguruan orejetazko borna dutenak. Hormetan Bizkaia, Gaztela eta Otxandioko armak dituzten hiru armari azpimarratu behar dira.

Eraikinak teilatu-hegal mardula du, kordeltxodun kanbolutadunekin; erdikoa emakume bat biluzik duen maskaroia da eta angeluetakoak zutik dauden

lehoiak dira.

Udaletxe hau Bizkaiko herrialdeko ikusgarrienetakoa da. Taxularia ezezaguna izan arren esan behar da oso eraikin harmonikoa gertutu zuela, hala aparejuetan nola eraikintzaren kalitateari dagokionean oso ondo eraiki zituen hormen bidez.

Euskal Herriko arkitektura publikoaren elementu propioak ditu, adibidez arkupean ataurre aparta, herritarrentzat solasean egoteko tokia alegia; jaietan bertatik ospakizunak ikusteko begiratokidun balkoiak, edota harri ondo landua. Bizkaian XVIII. gizaldian eraiki ziren udaletxe barrokoen artean armarrietan eta teilatu-hegal itzelean apainketak dituen apurretarikoa da.

1733an Oxandioko Udal Batzarrak Udaletxe berria eraikitzea erabaki zuen, lehengoa txikiegia zelako udalerraren beharrezanetarako. Udaletxe berria 1737ko urtarrilaren 1ean inauguratu zuten. Egia esan ez da ondo ezagutzen eraikinaren eraikintzari dagokion atala baina jakin dakigu armariak Jerónimo de Liermo eskultore kantabriararen lana direla, edota zurgintza Otxandioko Antonio de Isasmendiren lana dela.

Barruko elementuen artean bileren aretoaren lekurik garrantzitsuenean dagoen zeremoni aulkia azpimarratu behar da, Esteban de Vizcarra durangarrak 1742an egin zuen arotzia lan aipagarria baita.



Bizkaiko Foru
Aldundia

Kultura Saila
Ondare Historikoko
Zerbitzua

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Cultura
Servicio de Patrimonio
Histórico